

Beñat Iglesias

ARTISTA



IRUINDAR ESTATUBATUARTUA

Beñat Iglesias 1979ko urriaren 12an jaio zen Iruñean. 2005etik bizi da AEBetan. Bi semeren aita izan arte artelanak saltzea zuen ogibide. Duela lau urtetik bestelakoak ere egiten ditu: zurgintza, etxe konponketak, lantxoak. Bere bikotekidearekin batera 2.000 dolarreko alokairua ordaintzen dute Harlemgo *brownstone* batean, jabea ezaguna dutelako dute hain merke; auzoan 3.500\$ ari dira ordaintzen halako pisuengatik.

“Nola borrokatzen du birus baten kontrako super-heroi batek?”

New Yorken lan egiten duen artista iruindar bati buruzko albistea Arabiar Emirerri Batuetako ingelesezko egunkari salduenean. Zergatik? Central Park-en igeltsuzko eskultura bat agertu delako: lau urteko haur baten moldearekin egindako super-heroi bat, ospitale baten parean eta haur batek idatzitako “eskerrik asko” jartzen duen afixatxo batekin eskuan. Beñat Iglesias (Iruñea, 1979) eskulturaren egilearekin mintzatu gara.

 HEDOÍ ETXARTE  BEÑAT IGLESÍAS

Ezaguna egin da lana, zergatik?

Egia aitortuko dizut. Normalki artelanak egiten ditut. Erakusketa muntatzen dut. Eta bukatutakoan, ikusleak galeriara joan direnean esertzen naiz teklatuaren aurrean erakusketan dagoena argitzen. Erabat bukatuta dagoenean. Eta honakoan ere berdín ari naiz. Orain, kazetarietara erantzutean eta hasi naiz artelanaren eta testuinguruaren artekoa ulertzen eta aztertzen. Hurrengo kazetariari aurreko prentsako material guztia bidaltzen diot, adibidez. Diskurtsoa batuketaren bidez eratzen dut.

Bereziki argazkiak eta eskulturak egin dituzu. Zure aurreko zein ekoizpenekin du lotura ezagun egin den pieza honek?

Bisaia asko interesatu zait beti. Askotan landu dut. Egin izan ditut bustoak argazkiz, margolanez, grabatuz, marrazkiz ala eskulturaz. Erretratua asko landu dut. Ez nator super-he-

roien tradizioetik, inondik ere. Lan hau toki publiko batean dago jarrita. Nire aurrekari bakarra 2013an egin nuen *Bainulariak* eskultura seriea izan zen. Hudson-en ibaiertzean jite ezberdinetako gizon-emakumeak irudikatu nituen, Riverside Parken, urte bete egon ziren han.

Baina proiektu hark eta honek ez dute zerikusirik. Harekin aurrekontu bat izan nuen, dirulaguntzak izan nituen, jende askoren laguntza izan nuen, New Yorkeko udalak ere sustatu zuen, beste artisten laguntza izan nuen eta hautaketa prozesu baten ondorioa izan zen. Hau kasuala izan da. Semeari super-heroiak gustatzen zaizkio. Eta parkean ematen ditugun paseoetan beti ibiltzen da esaten “Hara! Gaizto bat dator”, eta batetik bestera ibiltzen da korrika. Azken hilabeteetako kontua da super-heroiena.

Koronabirusarena hasi zenean, eskolak bertan behera utzi aurretik, oso bitxia iruditzen zitzaidan New



EURIA EGITEN DUEN EGUNETAN EURITAKOA JARTZEN DIOTE SUPER-HEROIARI, HONDATU EZ DADIN.

Yorken ez zela inolako neurririk hartzen ari Europan hartzen ari ziren bitartean. Ni larritzen hasi nintzen eta semeak narbitu zuen. Orduan hasi zen koronabirusaren kontrako super-heroi batek bezala jokatzeko. Galdera asko egiten zizkidan: "Nola borrokatzen da birus baten kontra? Nola hil dezaket?". Eta hasi ginen hitz egiten horri buruz. Orduan bururatu zitzaidan, jendearengandik aldenteaz gain eskerrak eman genitazkeela egunerokoan lehen lerroan dauden sendalari eta langileei.

Martxoa amaieran hasi ginen eskultura egiten. Bitxia da jendeak esaten didalako semearentzat esperientzia ederra izango zela, baina zer dakit nik, hori berak esan beharko du hemendik urte batzuetara. Afera da zeharka konturatzen dela eskulturaren esanahiaz, ospitaleko langileek esker mezuak bidaltzen dizkigutenean, adibidez.

Eskultura bertan dago oraindik?
Bai.

Harrigarria da.

Hantxe dago. Apirilaren 23an jarri nuen, liburuaren egunean. Estudioko lan bat balitz askoz gehiago landuko nuke. Baina banuen halako larritasun bat bukatzeko, eta eskulturak atzeko istorioa eusten zuela sentitu nuenean bertan jarri nuen bizkor, nire lanketaren bulkada alde batera utzita.

Harrituta nago. Hasieran uste nuen piezak ordu batzuk iraungo zituela. Inondik ere ez egun bat baino gehiago. Baina egia da tokia berezia dela: Mount Sinai ospitalearen parean dago, eta toki gutxi zutenez ospitaleak kanpoan ere oheak jarri behar izan ditu, dendetan. Gainera polizia mordoa dago inguruan. Uste nuen poliziek ala parkeko guardek kendu egingo zutela segituan. Ala gaztetxoren batek ostiko bat emango ziola.

Bitxia iruditu zaizu halako eskultura gehiago ez agertzea munduko ospitaleen parean?

Pankarta eta proiektzio asko egin dira sendalarietara eskerrak emanez.

Bai, baina eskultura beste molde bateko interbentzio bat da, nahiz eta biribilguneetako txatarra bihurtu den neurri batean.

Egia. Hara, bi semeak hara joaten dira pediatriarenera. Parke horretan asko jolasten dute. Nahi nuen zerbait zehatzta haientzat eta niretzat. Nire ogibideak, beren osasunak, beren aisialdiak eta beren gustuak bat egin dute oharkabean pieza horretan. Egia da hasieran nahi nuela ordu batzuetara eman eta gero beste toki batzuetara eraman. Langile askok merezi dute eskertza: izkinako dendatxoko emakumeak, duela bi urte izozki denda ireki zuen gazteak... bistan da sendalarien lana, baina krisi honetan askoz jende gehiago dago ituan.

Orain jendeak bere egin du eskultura testuinguru horretan, ez dagokit niri erazte. ●